

ELKARLANEAN-BITARTEKO ORGANISMOAK PROGRAMA 2019

Helburua (9. art.)	Bitarteko organismoen arteko ekintza bateratua sustatzea, lankidetzan sortutako berrikuntzarako sustapen-jardueren eraginkortasuna areagotzeko.			
Erakunde onuradunak (10. art.)	Berezko nortasun juridikoa duten irabazteko asmorik gabeko erakundeak eta toki erakundeak, toki erakundeen mendeko merkataritzako sozietateak, haien xede nagusien artean enpresen arteko lankidetzak bultzatzea badago, baldintza hauek betetzen direnean: ▪ Erakunde horiek Bizkaiko Lurralde Historikoan eduki beharko dituzte euren zerga-egoitza eta sozietate-egoitza, kluster-elkarteen salbuespenarekin, azken horien kasuan Euskal Autonomi Erkidegoa izan baitaiteke. ▪ Zerga betebeharrak, G. S-rekikoak eta diru-laguntzak itzultzearen ondoriozkoak eguneratuta edukitzea.			
Diru-laguntza jaso dezakeen egitatea (11. art.)	Diruz lagunduko dira jarduerak baldin eta haien helburua bada aurreko baldintzak sortzea enpresen arteko lankidetzan sortutako berrikuntza-proiektuak egiteko. Aurkeztutako proiektu bakoitza bitarteko organismo batzuen artean egin beharko da, lankidetzan, eta aurretik egin ez diren jarduketa berritzaileak izan behar ditu xede, beren finantzaketarako funts osagarriak behar dituztenak. Diruz lagundu daitezkeen proiektuetan jarduera hauek sartu behar dira: ▪ Baterako dinamikak garatzea eragileen artean, sektoreen eta/edo lurraldeen arteko negozio-aukerak identifikatzeko eta zehazteko. ▪ Zaintza lehiakor kolaboratiboa egitea, enpresentzako joera teknologikoak zein merkatuko aukerak identifikatzeko. Batez ere lagungarriak direnean ezagutarazteko halako joerek zer balio duten lankidetzan sortutako berrikuntza-proiektu zehatzak identifikatzeko. ▪ Enpresen taldeak diseinatzea eta dinamizatzea, lankidetzan egindako negozioetarako leudekeen aukerak sortzeko.			
Diru-laguntza jaso dezaketen gastuak (12. art.)	▪ Proiektuan diharduten langileen ondoriozko gastuak; enpresako eta hileko gehienez ere 40 ordu hartuko dira kontuan (baita enpresako pertsona bi gehienez ere). ▪ Proiektuari loturiko kanpoko gastuak .			
Diru-laguntzen zenbatekoa (13, 20. eta 3. Azken xedapena)		Kostu mota	Diru-laguntzaren %	Gehieneko diru-laguntza
		Barneko gastuak	60%	20.000 €
		Kanpoko gastuak		40.000 €
	Dekretu honetako laguntzaren gehieneko zenbatekoa 40.000 € izango da eskabide bakoitzeko. Emango den aurrekontuko zuzkidura bakoitzeko kopuruaren % 75arte, laguntzaren emakida onetsitakoan eta gainontzekoa, 2019an, proiektua justifikatu ondoren. Berez dagoen aurrekontua: 293.000 €.			
Balorazio irizpideak (art. 14)	Onartuak izateko, proiektuek 35 puntu lortu beharko dituzte, gutxienez, irizpide hauen arabera: ▪ Lortu nahi diren helburuak (15 puntu) ▪ Berrikuntza maila (40 puntu) ▪ Lankidetzak-partzuergoa (30 puntu) ▪ Aurkeztutako proiektuaren kalitatea (10 puntu) ▪ Enpresak ingurumenarekin, erantzukizun sozialarekin, euskararekin eta berdintasunaren sustapenarekin duen konpromisoa (5 puntu)			
Diru-laguntzak emateko araubidea	179/2018 Foru Dekretua, abenduaren 18koa (BAO 244 zk., 2018ko abenduaren 20koa). Norgehiagokako araubidearen prozeduraren bidez emango dira diru-laguntzak.			
Epeak (15. eta 16. art.)	Proiektuak 2018ko urtarrilaren 1etik 2020ko ekainaren 30era bitarteko epearen barruan hasi eta amaitu behar dira. Eskabideak aurkezteko epea 2019ko martxoaren 1ean hasiko da eta 2019ko martxoaren 15ean amaituko da, 13:30etan. Eskabideak eta gainerako dokumentazioa Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Saileko Bulego Birtualaren bidez egingo da (www.bizkaia.eus/sustapena-bulegobirtuala). Horretarako sinadura elektronikoa izan beharko duzu (izenpe, NAN elektronikoa, FEA...), Bizkaibai zerbitzuan alta emanda egotea edo B@kQ ziurtagiri elektronikoa erabiltzea; ziurtagiri hau Orueta Apezpikuaren kaleko 6.ean eska daiteke. Eskabidea aurkezten denean, aurkeztu beharko dira eskabidearekin eta proiektuaren memoriarekin batera alderdien arteko lankidetzak-akordioa eta Dekretuan zehaztutako administrazio-agiriak.			